

EUSKALTEGIEN TXOKOA 31. ZENBAKIA

AEK euskaltegia



Txandapasa taldea



Auskalo taldea



Zalantza-dantza taldea



Gaztetxoak taldea



Trumoiak taldea



2. taldea



Zirtziluak taldea

HITZekin TROLLEkin

Hemen kontatu nahi dizueguna ez da fantasiako historia, nahiz eta Trolak agertzen diren. Ez pentsa trolak edo gezurrak kontatzera etorri garenik. Guk beste *Troll* erraldoi zoragarri batzuei buruz hitz egin nahi dizuegu. *Dokumentazio lana egiteko, informazioa Wikipediatik eta Korrikako webgunetik hartu dugu.*

Hernanin,
2022ko otsailaren 23an

Thomas Dambo agurgarria,

Lehenik eta behin, nor garen azalduko dizugu: Hernaniko (Gipuzkoa, Euskal Herria) AEK euskaltegiko ikasle talde bat gara, eta Amagoiarekin, gure irakaslearekin, egin dugun lan hau partekatu nahi izan dugu zurekin, gure ametsa zein den azaltzeko. Gutun hau gure herriko *Kronikan* publikatuko dugu.

Hernani Euskal Herrian dagoen 20.000 biztanle inguruko herria da. Euskal Herrian bizi gara, hain zuzen ere. Fijatzen bazara, Euskal Herria Espainia eta Frantzia artean dagoen herri txiki eta zahar bat da. Gure hizkuntza euskara da, diotenez, Europan dagoen hizkuntza aurreindoeuoparretatik bizirik mantendu den bakarra, eta bersionatu dugun esaerak dion bezala, “*muga* guztien gainetik eta laino guztien azpitik” bidaia-tzen da egunero gure hizkuntza, garai bateko sorginak bezala.

Gu euskara ikasten ari gara momentu honetan. Gure herriaren euskara gutxi gorabehera %80k ulertzen du, hitz egiteko gai da %60, baina %30ak erabiltzen du egunero kalean. Oztopo asko, edo gehiegi, eduki

izan ditu euskarak, baina beti egon izan da norbait defendatzeke. Hizkuntzaren defentsan garrantzi handikoa izan da, besteak beste, KORRIKA.

KORRIKA Euskal Herrian zehar egiten den lasterketa erraldoia da. AEK antolatzen du eta euskararen aldeko kontzientzia suspertzea eta euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea ditu helburu. Bi urtez behin egiten da eta 10 egun behar izaten ditu KORRIKAK Euskal Herri osoa zeharkatzeko. Edizio bakoitzean ibilbidea aldatu egiten da, baina beti 2500 km ingurukoa da ibilbidea. Milaka eta milaka herritarrek parte hartzen dute karreran.

Atzerrian dauden euskaldunek ere antolatu izan dituzte KORRIKAK Ameriketara, Asian, Europan eta Ozeanian. Ikusten duzunez, gure KORRIKAREN “ahizpak”, zure *trollak* bezala mundu osoan sakabanatzen ari dira. Guk dakigula, Danimarkan ez da KORRIKARik antolatu, baina agian erratuta gaude.


KORRIKAREN ideia hartuta, beste herrialde batzuetan KORRIKAREN gisako ekimenak antolatzen hasi ziren: Katalan Herrietan «Correllengua»; Arango haranean «Corsa per la Lenga»; Galizian «Correlingua»; Bretainian «Ar Redadeg»; Irlandan

«Rith»; Galesen «Ras yr Iaith»; eta Korsikan «Currilingua».

Korrika hasten den momentutik azken metrora, LEUKOKOA herriz-herri eta eskutik eskura txandatzen joaten da. Lekukoaren barruan mezu bat dago, eta mezua lasterketaren bukaeran irakurtzen da publikoaren aurrean. Beraz, kilometro guztietan zehar, herritarrek lekukoa eramaten dute, baina ez dute barruko mezua ezagutzen, azken momentura arte, sekretua delako. Lehen lekukoa Remigio Mendiburuk egin zuen 1980. urtean, eta orain Donostiako San Telmo museoan dago gordeta lekuko originala. Ondoren, 1988. urtetik aurrera, Juan Gorriti eskultoreak egin zuena erabiltzen da.

Lekukoak euskara ordezkatzen du. Milaka pertsonen konpromisoari esker gure hizkuntza ez galtzeko lekukoa eskuz-esku joaten da eta euskara ahoz-ahoz. Gerora ez dezagun negarrik egin troll erraldoietara igo ondoren.

1980.ko azaroaren 29an ARANTZAZUTIK bertatik abiatu zen 1. KORRIKA. Arantzazu santutegiak (Oñati, Gipuzkoa) Euskal Herri osoko bizitza erlijioso eta kulturalen izan duen eragina, ukazina da, baita Euskararen historian ere. Arantzazun



Korrikaren 1. lekukoa San Telmo Museoan

1968an, EUSKARA BATUAREN sorrera abiatu zen, eta euskara eredu idatzi bateratua publikatu zen batzar horren ondoren.

Arantzazu santutegiaren berrikuntzan, Euskal Herriko ARTISTA HANDIEK parte hartu zuten: Carlos Pascual de Larak (horma-irudiak, hura hil ondoren Lucio Muñozek); Nestor Basterretxeak (kriptan); Eduardo Txillidak (atariko lanak); Xabier Alvarez de Eulatek (beirateak); Xabier Egañak (margolanak); eta Jorge Oteizak. Kuriositatez aipatu nahi dugu obra gelditu egin zela, Oteizaren apostoluak ez zirelako arte erlijiosotzat hartzen Vatikanon.

Gainera, Arantzazu NATURA GUNE pribilegiatua da. Aizkorri-Aratz natura-parkean kokatua dago, Gipuzkoa eta Arabako lurralde historikoen arteko muga. Bertan daude gure mendi mitiko batzuk: Aizkorri, Aratz eta Egino, adibidez. Jatorrizko pagadi, amezti eta harizti basoak daude.

Baina, zoritxarrez, gizakiak esku hartu du, batez ere, Gipuzkoako aldean. EKOLOGIAREN ikuspegitik eta HIZKUNTZA-

REN EKOLOGIAREN ikuspegitik zehazki, zure *troll* bat behar dugula esan nahi dizugu.

Gure ametsa Arantzazun *ESKUTAN LEKUKOA DUEN TROLL* erraldoia eraikitzea litzateke. Basoan galduta, harekin topo egingo genuke, eta gogoraziko liguke zein inportantea den gure euskara egunero erabiltzea.

Zuk diozun bezala: “*Eta jende txikia gailurrera joan zen, begiak ireki zituzten lekura. Basoen atzean mendiak eta zeruak ikusi zituzten. Etorkizunera begira zeuden, malkoak begietan. Inork ez dakiena zera da: begiek ez dutela gezurrik esaten*».

EZ DEZAGUN ETORKIZUNEAN GAILURRIK EGIN, MALKOAK BEGIETAN DITUGULA

Besarkada erraldoia bidaltzen dizugu, eta zure lan zoragarriarekin jarrai dezazun animatu nahi zaitugu. Euskal Herrian ikusiko garelakoan, jaso agur bero bat,

Egileak:
Hernaniko AEKko 4. taldea



Sneaky Socks Alexa

Morton Arboretum, Chicago, 2018

Alexa Socks isekaria da, eta gizakiak tranpetan sartzea maite du. Gizakiak begiratuz ikasi du eta gizakiek gasolina eta urrea besterik maite ez dituztenez, orain bere tranpan sartzen ditu.



Joan And The Giant Beetle

Wynwood Walls, Miami, 2019

Joan jende txikiari begira dago. Kakalardo erraldoiean eserita dago. Beti auto ilaren zain. (Gizakiak ikusten ditu) haien egunak eta denbora galtzen.

Joanek kakalardo erraldoia ikusi zuen jende txikian eta hiltzen.

Baina, hala ere, bazirudien jendeak asko maite zuela (ilarak egitea) eta horrenbestez, ez lioketela utzi nahi (hori egiteari, auto ilarak egiteari, alegia)



The Future Forest

Mexico City, 2018

Gure planeta hondamenetan itotzen ari da, batez ere plastikoa erabiltzeagatik. Gure zaborra biltzeko jendea ari da egunero lanean Mexiko Hirian. Heroi hauek, “pepenadores” ezagunak dira. Thomasek eta bere taldeak 3 tona plastikoa hondakin 500m²-ko baso koloretsu bihurtu zuten bi hilabetetan. 1000 boluntario baino gehiagok parte hartu zuten egitasmoan (pepenadorees gain, ikastetxe eta unibertsitateko ikasle, irakasle, zahar egoitzetako egoile eta beste hainbat eragilek parte hartu zuten egitasmoan). Gizakiaren zaborra, beste norbaitentzat altxorra dela gogorazten digu Thomas Dambok.

<https://thomasdambo.com/works/the-future-forest/>

Ezagutzen dituzu pirritx, porrotx eta marimotots?

1. Margotu Porrotxen ilea zeruko kolorez

2. Karratuak diren begiak margotu: ezkerrekoa urdinez eta eskuinekoa horiz.

3. Marimototsen betaurrekoak Errealaren koloretako bat dauka. Asmatu eta margotu.

4. Marimototsen kamiseta margotu nahi duzun kolorearekin.

5. Zein lore da kolore bat ere? Asmatu eta margotu Pirritxen ilea.

6. Borobilak diren begiak margotu: eskuinekoa berdez eta ezkerrekoa gorritz.



Egileak: Trumoikoak

Antxonon biñeta



Egun batzuk geroago...



Egileak: Trumoikoak

Hizki-zopa

U	K	N	B	R	A	J	M	A	L	A	M
B	H	O	Q	F	R	Q	B	L	E	H	G
M	O	A	R	N	Y	F	V	L	K	A	L
B	I	T	O	R	A	A	E	K	U	M	C
N	R	S	S	R	I	O	Z	F	K	A	E
I	R	G	U	C	T	K	A	H	O	I	U
K	U	D	S	G	S	E	A	U	A	K	S
E	M	J	T	S	O	W	M	H	A	A	K
Z	A	P	R	G	N	M	R	O	C	G	A
T	V	E	A	C	O	U	V	E	L	P	R
I	N	S	I	B	D	H	A	M	C	I	A
H	F	U	R	G	O	N	E	T	A	K	K

Aurkitu hitz hauek:

DONOSTIA
KORRIKA
HITZEKIN
EUSKARA
AMURRIO
GAUA
LEKUKOA
AEK
KILOMETROA
SUSTRAI
HAMAICA
FURGONETAK

Egileak: Auskalo

Horoskopoa



Escorpius

Aurten oso goizez denez Korrika, hobeto geratu ohean eta lo egin gero ondo aprobetxatzeko eguna energia askorekin. Baina gogo asko badaukazu eta landu egin zara azken asteetan. Lortuko duzu irabaztea korrika denbora kontuan hartu gabe.



Sagittarius

Aste honetan, ilargi betetako indarrekin baliatuz proposatzen duzuna lortu ahal izango duzu, adibidez: azterketak gainditzea, asteko egun guztian gimnasiora joatea, zure bikotearekin ondo egotea, etab. Baina kontuz ibili, nola euskal herrian zaila da ilargi betea ikustea hodeien eta denbora txarraren ondorioz seguraski zure astea edozein aste bezalakoa izango da, eta ilargi betea ikusteko, ba Malagara joan. Maitasuna gaizki, diru gutxi; zaindu zure burua.



Geminis

Korrika dator arropa erosi bai edo ez. Hain beste zalan-tzak korrika pasako da eta ez zara konturatu. Egun bertan erabakiko duzu. Mesedez abisatu.



Piscis

Bizitza honetan hainbeste sentimendu alde batera utzi eta korrika egin.



Capricornius

Hauek, beti, goiko sabaila ikutu nahian dabilta, nahiz zu bide ona erakutsi, beraiek, beraienean jarraituko dute eta ez dute atzera egingo.



Libra

Astroen alineazioarengatik gauz txartak gertatuko zaizkizu, hain beste nahi duzun

horretan. Kontuz ibili, gehiago esfortzatu egin beharko zara.



Acuarius

Oso bihotz ona daukazu, horren ondorioz, kontuz ibili beharko duzu zure inguruko jendearekin. Borraska handia etortzen ari da zuregana.



Virgo

Gogoratzen zara?? Korrika Martxoaren 31an hasiko da!! Bilatu zure armairuan, praka elastikoak eta hasi entrenatzea. Ez ahaztu paracetamol bat, bes-tela ezingo duzu mugitu ohetik.



Taurus

Ze pazientzia dauka zure bikoteak!! Egunero bakarrik pentsatzen duzu entrenatzea, korrika egiteko. Sorpresa eman berari, eta konbidatu spa batera erlaxatzera.



Cancer

Ez utzi pasatzen korrika; lasterketan aurkituko duzu zure bizitzako maitasuna. Bidean dago zure helmuga, bakarrik begiak eta biotza irrikita behar duzu.



Aries

Nola pentsatzen duzu korrika egitea atzo parrandan bazeuden? kontuz alkoholekin eta maitasunarekin.



Leo

Aurten Korrika garaiz heldu da, zure gorputza eta burua prestatu ez izan horren lasai, Leo zara. Eta lehoien indarrez baliatu, oihanean bezala, errepidean ere indartsuena eta azkarrena izango zara... Animo!

Egileak: Txandapasa taldea



Euskara edan

Sagardoa behar du sagardogileak.
Hizkuntza Politika behar du euskarak.

Sagardozaileak behar ditu sagardoak. Hitzunak behar ditu euskarak. Sagardogilearen lanik gabe ez dago sagardorik. Sagardozailek gabeko sagardoak ere zer zentzu dauka ba, hura inork dastatu ezean? Politikan esku-mena dutenek euskararen Hizkuntza Politikari ekin. HITZEKIN eta ekintzekin. Norbanakook entzun, irakurri, gozatu, dastatu... Hitz bitan, egin. Hitz egin, HITZ EKIN. Horiek guztiak behar ditu euskarak. Bestela, hankamotz gera liteke euskararen aldeko ekina: sagardozailek gabeko sagardoa. Hitzunik gabeko hizkuntza. Urik gabeko Urumea. Errimarik gabeko bertsoa. Ajerik gabeko parranda. Ezkirik gabeko Ezkiaga. Euskararik gabeko Hernani. Korrikalaririk gabeko Korrika.

Erabili: irakurri, entzun, idatzi. Pentsatu, amestu, sentitu. Hori baita hizkuntzak biziraute-

ko duen modua. Gurea da hautua. Ekin euskara herrira ekartzeari, herria euskarara ekartzeari: plazetan, jolastokietan, tabernetan, etxean, lanean... HITZEKIN.

Hernanin sagarrak zuhaitzetan dantzan dabilta eta Axerri-dantza nagusi da San Juanetan. Salto eta salto, txotx eta txotx, ahoz aho, pausoz pauso. Saskiak bete eta edan dezagun gure zuketik, gure hizkuntzatik jan eta edan, gozotik eta gazitik, handi eta txiki. Ni, zu, zuek, denok gara gu. Kaleak josiz eta plazak eraikiz. Ekinez, ezina eginez, HITZEKINEZ, zabal dezagun gure zukuia. Euskara edan nahi dugulako.

*Topa eta topa
tipi eta tapa
aurten ere
Gurekin da Korrika!*

Egileak: Zirtziluk taldea

KORRIKAn irten aurretik eta korrika topera egiteko jan beharreko platera. Zein izango ote da?

Orea egiteko osagaiak

- Irina
- Ura
- Gatza
- Gurina
- Arrautza
- Esne-hautsa
- Legamia

Betetzeko osagaiak

- Haragi txikitua
- Tipula gorria
- Piper berdea
- Azenarioa
- Baratxuria
- Arrautza egosia
- Gatza
- Pipermina
- Kominoa
- Mahats-pasak
- Oliba berdeak
- Olioia
- Ardo beltza

Sukaldeko tresnak

- Koilara
- Egurrezko ohola
- Labana
- Zartagina
- Apar-burruntzalia

æk

HITZEKIN

Amurriotik Donostiara
2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

Prestaketa

Hasteko, ontzi batean ura, esne-hautsa, irina, legamia eta arrautzak jarriko ditugu. Gero, gatza gehitzen da. Ondoren, dena nahastuko dugu hamar minutuz. Ondoren, gurina jarriko dugu eta bi orduz atsedean emango diogu.

Bitartean, betetzekoa egingo dugu.

Tipula gorri bat, 200 gr azenario eta bi piper berde garbituko eta txikituko ditugu. Ondoren, zartaginean gorritu eta haragi txikitua gehituko diogu. Gatz pixka bat, pipermina eta kominoa gehituko dizkiogu.

Sua itzali aurretik, haragi-txikituari ardo beltza botatzen da eta egosi egingo dugu.

Jarraian, bi arrautza egosiko

ditugu eta olibak moztuko ditugu. Orain, dena nahastu eta dena hozten utziko dugu.

Azkenik, ore hartuko dugu eta opil forma eman eta moztu egingo dugu.


Haragiarekin egindako nahasketa jarriko dugu orean eta orearekin bilduko dugu. Amaitzeko, egindako "opiltxoak" frijitu egingo ditugu.

ON EGIN eta KORRIKA ondo egin!!!!

ZEIN PLATER PRESTATU DUGU???

Egileak: Hernaniko euskaltegiko "GAZTETXOAK" taldea

Gurutzegrama



Ezker-eskuin

3. Pertsona horiei dena kontaktzen diet.
5. Korrikaren buruan doanak eskuan daramana.
6. Soinua erreproduzitzen dute.
8. Jende asko dago hemen!
10. Aurtengoa HitzEkin da.

Goitik behera

1. Zer dago Korrikaren buruan doanak eskuan daraman tresnaren barruan?
2. Jendeak korri egiten du proba horretan.
4. Korrikalariak animatzeko da, besteak beste.
7. Hiriak baino txikiagoak dira.
9. Euskara ikastera joaten garen lekua.

Egileak: 2. taldea